

Foru Aldundiak lurraldeko landako bilketaguneen sarea ustiatzeko eta mantentzeko zerbitzua esleitu du

Gasteiz, 2024ko otsailaren 13a. Araban 97 landako bilketagune daude, lurraldean zehar banatuta. Haietan, eraikuntza eta eraispén hondakinen frakzioetarako, tamaina handikoetarako eta inausketetarako gaikako bilketa egiteko edukiontziak daude.

Jasangarritasun, Nekazaritza eta Natura Ingurunearen Sailak eskatuta, Gobernu Kontseiluak onetsi du Prezero Gestión Residuos SA eta Obras Públicas Onaindia enpresek osatutako ABEEri esleitzea "Arabako landako bilketaguneen sarea ustiatzeko eta mantentzeko zerbitzua".

Aurrekontua 1.541.848,00 euro da, BEZa barne, eta 2 urteko epea izango du gauzatzeko, beste hiru urtez luzatzeko aukerarekin, urtez urte, 5 urteko gehieneko epea gainditu gabe kontratuaren iraupenak.

Egin beharreko lanen artean daude, oro har, landako bilketaguneak garbitzea, mantentzea eta konpontzea; hondakinak biltzea, garraiatzea eta kudeatzea; bai eta, hala badagokio, inausketa hondakinak birrintzeko edo bilketaguneak desegiteko unean uneko beste lan batzuk egitea ere. Edukiontzien errolda eguneratzea ere sartzen da, baita ingurumen dokumentazioaren kontrol eta jarraipen sistemak ere.

Eredu zirkular bateranzko trantsizioa funtsezkoa da, eta ezin da bultzatu Arabako herritar guztien lankidetzarik gabe. Ingurunearekiko konpromiso pertsonal batetik abiatuta, ezinbestekoa da sortzen diren hondakinak behar bezala birziklatzea eta, aldi berean, klima aldaketaren inpaktuak geldiarazten laguntzea. Instalazio horiek hondakinen gaikako bilketaren ehunekoa hobetzeko eta lurraldearen klima eraldaketan laguntzeko tresna dira.

Arabako Foru Aldundiak urteko ekarpenak egiten dizkie Gatz Haran eta Santa Maria katedralari

Gobernu Kontseiluak, Ana del Val foru diputatu duen Kultura eta Kirol Sailaren proposamenez, onespena eman die Arabako Foru Aldundiak, Añanako Gatz Haran Fundazio eta Santa Maria katedralari egiten dizkien urteko ekarpenei 2024ko ekitaldirako.

Zehazki, honako hauek izan dira:

Santa Maria Katedralaren Fundazioa arduratzen da Gasteizko tenplurik deigarriena eta balio historikorik handiena duena osorik zaharberritzeko plan zuzentzailea kudeatzeaz eta garatzeaz. Beraz, erakundea oinarritzeko tresna da eraikina eta haren ingurua arkitekturaren, gizartearen eta kulturaren aldetik berreskuratzeko. Kasu horretan, ekarpena 799.005 euro izan da, 2023an baino 10.664 euro gehiago.

Azkenik, Añanako Gatz Harana Fundazioari dagokionez, 692.236 euroko ekarpena egin zaio. Añanako Gatz Harana eta haren ingurunea finkatu, leheneratu eta osorik birgaitzea da fundazioaren helburua. Horrek esan nahi du 10.637 euroko igoera egon dela aurreko ekitaldiarekin alderatuta.

Federazioek foru ekarpenaren bigarren zatia jasoko dute Eskola Kirolaren kudeaketatik; hain zuzen ere, 264.715,51 euro

Gobernu Kontseiluak gaur onetsi du Arabako hainbat kirol federazioekin izenpetutako 36 lankidetzaren hitzarmenei lotutako gastua, Eskola Kirola kudeatzeko 2024ko urtarrietik ekainera bitartean; hau da, 2023-2024 denboraldiko bigarren zatia, 264.715,51 euroko zenbatekoan.

Guztira 36 federaziok sinatu dute hitzarmena, eta 1.464 eurotik 30.720 eurora bitarteko zenbatekoak jasoko dituzte.

Guztira, 401.857,34 euro jasoko dituzte ikasturte osoan.